

FUNTZEZKO BALIABIDEAK

6.1. GIZA BALIABIDEAK

Gure proiektuan giza baliabideak funtsezko elementuak izango dira, aplikazioaren garapena eta salmenta arrakastatsuak lortzeko. Bi motako langileak izango ditugu:



- **Teknikariak:** Aplikazioaren garapenean eta mantentzean arituko diren profesionalak, esperientzia teknologikoarekin. Langile esperientziadunek gure enpresaren kalitatean eta helburuak betetzearen arrakastan lagunduko dute.
- **Ordezkariek:** gure zerbitzuak eskola desberdinetan sustatzeaz arduratuko dira, ikastetxeekin harreman zuzena izango dute eta merkatuan gure aplikazioa ezagutaraziko dute.

Bi taldeek, **teknikariak eta ordezkariak**, osatzen dute gure langile-taldea, eta horien esperientzia eta lanaren kalitatea erabakigarriak izango dira zerbitzuaren arrakastan. Langileak hautatzerakoan, esperientzia eta ezagutza kontuan hartuko ditugu.

6.2. BALIABIDE INTELEKTUALAK



Gure proiektua aurrera eramateko, baliabide intelektualak eta langile kualifikatuak behar ditugu. Gehien bat internet eta aplikazioen garapenean adituak izango dira, eta lanerako prestatuak egon behar dute. Langileek esperientzia eta ikasketak izan behar dituzte, aplikazioa ondo garatzeko. Sormena ezinbestekoa da aplikazioa bereizteko, eta gure langileek arazoei aurre egiteko gaitasuna izan behar dute, baita inteligentzia artifizialeko aplikazioak erabiltzen jakin behar dute. Horretaz gain, langileak koordinatzea eta haien lana zuzendu ahal izango duen zuzendari bat behar dugu. Zuzendariak langileei laguntza ematen jakin behar du, eta bakoitzaren beharrei erantzuten ikasi. Langile guztiek formakuntza jasoko dute gure lanaren esparruan. Bestalde, CEO bat ere izango dugu, eta honek ikuskatze funtzioa izango du, proiektua guztiz zuzendu eta kontrolatzeko.

6.3. BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide fisikoak, erakundeak negozioaren helburuak lortzeko eta eragiketak burutzeko behar dituen ondasun ukigarriak dira, eta hauek aktiboak barne hartzen dituzte, adibidez, makineria. Gure kasuan, behar ditugun baliabide



fisikoak honako hauek izango dira: bulego bat guztion artean lan egiteko, makineria bezalako ordenagailuak, idazmahaiak, altzariak, inprimagailuak eta telefonoak, bulegoan behar dugun materiala eta bestelako erremintak eta hornidurak, baita segurtasun-ekipamenduak ere, hala nola monitoretza-sistemak, kamerak, zaintza-sistemak, sarbide-kontrola eta alarmak. Baliabide fisiko hauek industriaren funtzionamenduaren funtsezko zatiak dira, eta haiek gabe, jarduerak burutzea ezinezkoa izango litzateke. Horrez gain, baliabide fisikoak enpresaren osotasunaren parte dira, finantza eta giza baliabideekin batera osatzen dutelarik.

6.4. FINANTZA MOTA

Gure proiektua aurrera eramateko iturri nagusia aplikazioak lortutako diru sarrerak izango dira. Aplikazioaren kontratazioaren kostuak, haren garapenaren kostuak gainditzeko moduan egongo dira, eta hilabete gutxiren buruan lehenengo irabaziak lortzen hasiko gara. Horrela, gure



aplikazioaren kontratazio kostuak pixkanaka alda daitezke. Aplikazioa sortzeko behar den dirua hainbat finantza iturri egonkorren bidez lortuko dugu. Batetik, akzionistetatik jasotako aurreztutako dirua izango dugu, taldeko bakoitzak 5000 euro aurreztuta izango dituelarik. Bestetik, bankuetatik jasoko dugu finantza arrotzaren laguntza eta ekintzaileei zuzendutako diru-laguntzetatik etorriko dira beste baliabide batzuk. Hala ere, faltako dirua prestamoetan eskuratuko dugu eta horren bidez, kostuak estaltzeko laguntza izango dugu. Geroago, hilabetez hilabete, kuotetan itzuli beharko dugu diru hori, interesekin batera. Azkenik, gure finantza tresna desberdinak erabilgarri izango ditugu, eta hala, behar izanez gero, alokairuak edo faktORIZAZIOAK eginez, edozein arazo edo ezintasun ekonomiko konpondu ahal izango dugu.